



Akelarre. Nestor Barrenetxea



## EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortazun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarriz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa

# bertan



MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

1999ko abendua 17. zkia. 125 pz

**Pilar Gil**  
Etxe-Langileen Elkarteko  
lehendakaria

**"... gainerako edozein langilek duen legedi berak arau gaitzala eskatzen dugu."**

DURANGOKO  
AZOKA



GABONAK AILEGATU  
DIRA...  
...JOSTAILUAK ERE BAI

HORTZMUCA: EXTRALUTARRAK MAHATSHERRIAN

Lege gordailua: BI-85-98



Sorgintxuloko liburutegia  Pilota Eskola  Mendi Ibilbidea



*Begoñako argazki hau, orain dala 35-40 urte atarata dago eta nabarmena da holako denpora laburrean Begoñak izan dauen aldaketa itzela. Urte horreetan oindino Begoñako zatirik handiena baserriz eta soloz beterik egoan.*

ARGITARATZAILEA:  
Batana Batu Kultur  
Elkartea

ERREDAKZIOA:  
Iturriaga 55, 1. ezk.  
Bilbo - 48004  
Tfnoa: 94 473 54 48  
e-posta:  
berton@mail.com

KORDINATZAILEA:  
Unai Cuevas

ERREDAKZIOA:  
Arrate Diez, Joana  
Martínez, Joana  
Etxebarria, Irune  
Berro, Iratxe Ruiz,  
Leire Altamira,  
Erdoitza Martínez

ARGAZKIAK:  
Iñigo Azkona eta  
Xabier Herrera

DISEINUA ETA MAKE-  
TAZIOA:

Iñaki Berastegi,  
Joseba Barrenetxea,  
Benito Fiz


KOLABORATZAILEAK:  
Jaione Letamendia,  
Itxaso Perez, Alber-  
to Ugarte, Iñaki  
Gaminde, Igor M.  
de Vidales, Santu-  
txuko Ber-tso Esko-  
la, Igor Zorrozueta,  
Iñaki Aurrekoetxea,  
Joseba Zelaia.

ADMINISTRAZIOA ETA  
PUBLIZITATEA:  
Koldo Urrutikoe-  
txea, Joxe Garcia

LEGE GORDAILUA:  
Bi-85-98

ALE KOPURUA:  
1.000

## A U R K I B I D E A




▶ Betikoak .....	2	▶ Mahatsberriak .....	16
▶ Iritzia .....	4	▶ Erreportaia, Jostailu sexistak .....	20
▶ Hortzmuga .....	5	▶ Behetik Gora, Euskera eguna .....	22
▶ Hileko argazkia .....	7	▶ Bota ba, Pilota Eskola .....	24
▶ Begoña eta euskerea .....	8	▶ Bidean Gora, Mendi Ibilbideak .....	26
▶ Berton dugu! Durangoko azoka .....	10	▶ Bideak, Sorgintxuloko Liburutegia .....	28
▶ Bakarka, Pilar García .....	12	▶ Badatoz, Agenda eta horoskopoa .....	30
▶ Inkesta .....	15	▶ Begizorrotza, Komikia .....	28

**T**a zer pasa da? Bi mile datorrela-eta, kristo-  
nak-eta pasauko zireala, ta hau ta bestie, ta  
zer? zeozer pasa da? Nik gabonzarrien  
egundoko atxurre atrapau neuen baie, ganerako-  
an ezebez, ta atxurrena ganera urterokoa ixeten  
da. Beraz, barririk ezebez.  
Ta ganera egon nintzen itxaroten aber elfestodos-  
mil hori zer zan, baie ordenarie ez dekot, ta etxien  
aszensorerik ez, ta ganera abioak jausten ez  
dodaz ikusi. Orduen, lengo modure dana.  
Konklusinoa, lengo moduen segidu. Ze, horreik  
numeroak, gure Tio Migel difuntuek esaten zauen

lez jendeari enredoak ekarteko ta dana kakazteko  
baino ez direz. Ta bi mile ixen nai zazpi ixen  
hamen surtara egurre bota bier da egunero suetie  
berotu deidxen. Ta Berton leiduten segidu, ze  
holan enteraten zara ingeruen zer pasetan dan, ze  
batzuk beste bi mile urtien bere ez dire enterako.  
Eta ez daittezela beste bi mile urte pasau neska-  
mieri eta etxeko biergineri pagau bier jakiena  
pagau barik. Eta ez daittezela pasau Olentzerok  
edo Erregiek edo Papa Noelek edo Sumsumkor-  
dak ganorazko jeneroa ekarri barik. Eta etxean  
egon gure dogun guztidok hamen egon barik.

Firmaute: *Bimilagarren Matsorrianoa*

## ATXETA KALEAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako elizate zaharrea badago Atxeta izeneko kalea. Bide-kale luzea da hori, 'haitz'en kalea, hain zuzen. Bada, euskal toki-izen horrek zerikusia dau '(h)aitz' sustraiagaz. Bide-kale horrek hasieraa dau Egirletako mazelan; hortik behera egiten dau Urandeletik, Begoñako elizate zaharreko lurretan zehar, eta amaieraa dau Zumalakarregi etorbidera heldu aurretik. Bide horretan zehar Sarrikue, Arabella eta Begoñako Andra Mari etxe-multzoak zeharkatzen dauz.


Esan dogun legez, bide-kale horren izena '(h)aitz'en sustraikoa da, eta Bizkaian bertan badago izen bereko beste toki bat. Izan bere, toki hori Gernikaldean dago, Foruko elizatean; haitzuloa da eta aresti arte ezezaguna zan.

1959 eta 1960. urteetan Joxe Miel Barandiaranek aurkitu eta aztertu eban. Haitzulo horrek 14 metroko luzera dau, eta bertan Goi Paleolitoko aztarnak azaldu dira.

Gogoan hartu behar dogu, atxeta eta haitzulo sustrai bereko ahiztak doguzala. Alde batera, atxetak aditzera emoten dau, haitz asko dagozan lekua dala hori, ezen bizkaieraz, beste euskalki batzuetan legez, zahar legera behintzat, -eta atzizkiak ugaritasuna adierazoten dau: Landatueta, Gaztelueta, Lauroeta.... Beste aldera, barriz, haitzulok haitzetan dagoan zuloa adierazoten dau.

GOTZON LOBERA REVILLA, Euskara Sustatzeko Zuzendari Nagusia (Kultura Saila -Bizkaiko Foru Aldundia).

## OTXARKOAGA EZ DA LEHENGOA



Gaur egun Otxarkoagaz hitz egiteak kasik zer ikusirik ez dauka orain dela 10 urtekoarekin auzune honen garapena oso nabarmena eta agirikoa izan baita. Hobakuntza sozialak eta hirigintza arlokoak normalizaziorantz bideratu dute. Zoritxarrez, auzune periferikoa izateak eta jendearen aurrejuzkuek eragozten dute kanpokoek daukaten irudia hainbeste aldatzea.

Azkenengo 10 urteotan eta auzotarron ekimenari esker zenbait instituzio inplikatzeko lortu delarik amaitu da etxebizitza bloke guztien erreforma eta espaloi, lorategi eta kaleen urbanizazioa aurrea doa, astiro bada ere.

Droga arazoa hainbat urtetan auzunearen izenari itsatsita egon dena kasik erauzita dago bai kontsumoan baita trafikoan ere. Azken honetaz auzo ekimena nabarmendu behar da berriro ere kontsumitzaile kopuruaren apaltzearekin batera. Droga kontsumoa dela eta, apaldu ere egin da tama-

lez bidean hilotz asko utzita.

Otxarkoagak badu osasun zentro ona baita bitarteko sozial eta kultural batzuk.

Baina, hala ere, badago arriskurik hobakuntza hauek guztiak kolokan jar ditzaketanak: Langabezi indize altua, Ijito haurren kopuru handia eskoletan etorkizunean integrazio arazoak sorburu izan daitekeena eta etxebizitzaren esleipen politika, gure auzunean bazterketa sozialaren egoeran dauden familia asko metatzen segitzen duena. Beharrezkoa da Bilboko auzuneetan familia multiproblematikoak banatzea behin betiko bazterketa sozialaren egoerak iraunarazi nahi ez badira.

JOSE MARIA LANA ARBIZU, Cáritas-eko arduraduna.

berton<sup>ek</sup>

## Zuzendaria behar du

Interesatzen bazaizu jarri harremanetan gurekin hemen:

☎ **94 473 54 48** telefonoan

☎ **berton@mail.com** e-postan

edo

☎ **Iturriaga 55, 1. ezkerre** helbidean

### HORTZMUGA:

## EXTRALURTARRAK MAHATSHERRIAN

☞ Joana Martínez

**E**gun arrunta da gaurkoa; eguzkitsua baina fresko samarra, lasaia... Arratsalde partean jende ugari dabil zazpi kaleetan zehar, paseatzen edota Gabonetako azken momentuko erosketak egiten. Ziur aski herritar hauek euren etxeetatik irten direnean ez zuten aparteko ezer ikusterik espero, baina...




Buuuuuum!!! Bat-batean, musika eta zarata hotsa handia entzuten dute kale amaieran. Norabide horretan begiratu eta...horra hor, hiru extralurtar agertu direla, plater hegalaria eta guzti! Hortzmugakoak dira, euren azken espektakuluarekin: Galaxi.

Hortzmuga taldea 1998. urtean sortu zen, aisiadirako talde baten barnean. Zurbaranbarriko lagun koa-drilla batek, zankoetan ibiltzea gustuko zuena, bere abilezia kalera ateratzea erabaki zuen, gure hiriko kaleei bizitasun apur bat emateko asmoz. Orduetik hona hamar urte pasa dira eta hasiera denborapasa zena, ogibide

serioa bihurtu da Hortzmugaren partaideentzako. Izan ere, jadanik bizpahiru urte dira talde hau enpresa modura diharduela eta aurretik etorkizun oparoa duela ematen du.

Baina, zertan datza Hortzmugaren arrakasta? Hasteko, garrantzitsua da aipatzea kale aimazioko aditu hauek publikoa bereganatzen saiatzen direla euren ekintza guztietan, ikusleen partaidetza bultzatuz eta historioaren parte bihurtuz. Honi espektakulo guztietan erabiltzen dituzten jantzi koloretsu ezberdinak, musika eta elementu ikusgarriak gehitzen badizkiogu, ez da





Hortzmuga taldea "Primus" antzerkilarako jantzita

zaila imajinatzea jende guztiaren arreta lortzen dutela, ume, guraso, zein agureena.

Momentu honetan bost dira Hortzmugak kalean dituen ikuskizunak, baina hamar urtetako ibilbide luze horretan zehar beste hainbat sortu dituzte, bidean geldituz joan direnak ekintza berriei lekua uzteko. Hona hemen momentu honetan ikusgai dauden espektakuluen zerrenda:

**PRIMUS:** clown teknika jarraituz lau antzezlek ekintza desberdinak burutzen dituzte komikotasun handiz, publikoaren artean nahastuz eta honen partaidetza bultzatuz. Horrela, pertsonaiek jesarleku bat erabiliko dute formula 1eko kotxe gisa, peatoi bat farola gisa edota txakur bat tranbia modura; ikuslegoa euren erokeria munduan baneratzuz.

**KOLORE** izenekoa kalejira bat da, bere izenak dioen moduan, koloreen erabilpenean oinarritutakoa. Zankoen gainean eta musikaz lagundurik, kaleetan zehar dantzan doaz Hortzmugakoak: zirrara bisuala ziurtaturik dago ipotx itxurako erraldoi hauen eskutik.


**HORTZISAURIOAK;** batez ere umei zuzendutako ikuskizuna da, dinosaurioz mozorrotutako antzezleek proposatutako jokuetan parte hartzera berehala animatzen den publikoa delako.

Antzeko zerbait gertatzen da SPORTZISekin, baina kasu honetan dinosaurioen lekuan bestelako animaliak izan-

go ditugu, pertsonai nagusia den «Gran Divo»ren agintuetara mugituko direnak «Sportzis» edari miragarriaren promozioa eginez, bide batez umeekin joku piloa egiten dutelarik.

Amaitzeko, hilabete honetan estrenatuko den GALAXI dugu, Hortzmugakoen ikuskizun berriena. Oraingo honetan planteatzen den historioaren karkoa hiru extralurtar dira, hutsegite baten ondorioz Lurrera iritsi direnak. Alde egitera doazenean plater hegalariari energia falta zaiola ikusten dute. Orduan Filum buruzagiak laguntza eskatuko die publikoko haurrei, pila berriz kargatu eta alde egin ahal izateko. Helburu horrekin jokuak egiten ari direla, erdi-pertsona erdi-animali diren "Cheewaka" iletsuak heltzen dira. Itxura beldurgarria badute ere, pertsonai oso simple eta barregarriak dira, maliziarik gabekoak. Hala ere, oztoporen bat edo beste jarriko diete extralurtarrei energia lortzeko orduan. Azkenik alde egitea lortuko al dute? Laster jakingo dugu erantzuna, espektakulu honek abenduaren 22an ikusiko duelako argia Gabonetako Umeentzako Parkean.

Ez dakigu ikuskizun berri hau galaxia osoan antzeztuko ote duten, baina argi dago orain arte bisitatutako lekuen zerrenda, berez nahiko luzea zena (Euskal Herriko herri gehienak, Tárrega, Vilarreal, Santander...) oraindik askoz gehiago luzatuko dutela. Espero dezagun, hala ere, agendan lekutxo bat gelditzea Mahatserriko kaleak beste behin kolorez betetzeko.



Txarri belarri, txarri belarri  
Urte barriak zer ekarri?  
Dekonak ez dekonari  
Nik ez dekot eta niri

Urte Barri eguneko Bizkaiko kantua

## ESPAINIKO GERRA ZIBILA GURE HERRIEN ETA HAINBET BEGOÑATARREN BIZIPENAK (I)

Burdinazko hesia (Cinturón de hierro) apurtu ostean 1937ko ekainaren 11n, frankistek 24 orduren buruan Galdakao eta Santamaña gainak konkistatu eben. Erreketek Zamudio hartu eta Derioraino ailegatu ziran. Sto. Domingo eta Artxanda hartzea falta jakien Bilbora heltzeko

*"Hemen asko agoanta eurien, lenengo frentea eta bigarrena hor goien egon zuazen. Monte Avriletik sartu zauzen."*

*Gabriel Etxebarriak, 17 urtegaz gerra zibila eta bere baserri ondoko gertakizunak ezagutu dauz.*

I.Gaminde, I. Martin de Vidales eta K. Urrutikoetxea

# Begoña eta Euskerea

**Berton.-Ibilita zauz gerran?**

**Grabiel.-**Niri 18 urte l'erdigaz eroan eustien lenengo instruziñoa ikisten Logroñora Regimiento Bailén 24, gero handik behaz bi galdu neizan bonba bateaz eta "Servicio Auxiliarrak" emon eusteazan eta fusilik ez neuen koiu.

**Berton.-**Eta hemen Artxanda partetik sartu zirenean, non bizi zinen zu orduan?

**Grabiel.-**Ni horko goiko etxean.

**Berton.-**Eta hor egon zinen etorri zirenenan?

**Grabiel.-**Ez gu martxeu in giñun hona Etxebarria fabriken kontrara sotanoek eta txaletek hor eukiten genduzen ganaduek, eta sartu giñuzen sotanoen. Hor egon giñun 10 edo Bilbo koiu arte, gero ganadu koiu eta taka-taka hor etsealdera.

**Berton.-**Eta behatzak galtzearena zelán izen zen ba?

**Grabiel.-**Hor soloan bedarran bille joan eta laranja moduko bonba bat zapaldu neuen.


**Berton.-**Eta nok botata edo?

**Grabiel.-**Francon soldaduek, solo guztiek egon zuazen holan, soloak.. buf, bonbak eta metralladoran kartutxoak..., milek, milek hor goien.

**Berton.-**Hainbeste gerra egon zan ba hor?

**Grabiel.-**Hemen asko agoanta eurien, lenengo frentea eta bigarrena hor goien egon zuazen. Monte Avriletik sartu zauzen. Lenango obusek nik barruntau neuzenean, bota zauzan Bilbora lenango obuse, gero hor egon gintzezenan Zurbaranen, sartu zauzen or obusak, jo.. hor a..bedarra apur bet ebaiten beieri emoteko eta obusek Santo Domingo jo ta, brrrrrr...horra beraño etorten ziren, etxerik errementaten ziren.

**Berton.-**«Cinturón de hierro»ko trintxerak eta, egon dira hemen?



Grabiel Etxebarria Santamaña kamino ondoko baserri batean bizi da.

**Grabiel.-**Danak ezetu dodaz nik eitten, bat hor Merendero Leonen aurrean egon zuen bat. Nido de ametralladoras, baie alrrebes inde.

**Berton.-**Zergatik aldrebes inde?

**Grabiel.-**Bai. Hor egon zana honantza begire eta atzetik sartu zauzen, hortik kastillotik. Sue emon eutsien baso guztieri eta gero sartu zauzen eurek. Hor e..hilek be makina bat egon zuazen.

**Berton.-**Eta egiteko materiala eta kamioak eta nondik ekarten eben?

**Gabriel.-**Hor goien kamiñoa egoan landaraño enbrak iminten zuazen hor beharrean.

**Berton.-**Gaztea izango zinen zeu orduen ezta?

**Grabiel.-**Orduan mutiko bat izen nintxuan ni, ta hamentxe año 37an, 18 urte in barik.

*"Hainbeste urtetan egon dira hor kurtzeak eta lorak eta...."*

Alejandro Urrutikoetxea, Arbolantxan bizi da eta gerrea bete betean bizi izan zuen.



Ganguren mendian dagoen "burdinazko ezika" metralladore nitxo.

**Berton.-**Gerreak gazte harrapatu zintuan ezta?

**Alejandro.-**Bai, 1918koa naz eta 17 urtegaz eta egon gintzezan instruziñoa itten honeek Iñaki Lozoñoko, Nikolas, Cosme eta honeek, esaten euskuen gazetxuek zarie baia erongo dautsue ondiñokarren. Eskolapiotara eron euskun instruziñoa ikisten. Kalien iten gendun instruziñoa eta behin holango baten deitu euskun instruziñoa hasi eta ensegida. Benga "rompe filas" eta goazen eskolapiotara, eta topa geñun erropie, yantzi soldadu, kartutxerak, fusille, muniziñoa, uniforme osoa, eta autobusera. Hainbeste autobus bakotxera, eta basora gaubez.

**Berton.-**Autobusetan nora eroan zintuen?

**Alejandro.-**Mendire trintxeretara, Bitori partera edo, gaubez izan zan. Han lotute egon zen frentea, ezan egon tiroteorik. Abio txikerrak eta iten eurien ametrallau, makurtu barrure eta geldid han, baju etorten ziren eta esaten euskun dispareuteko. Abio bi bota ziren han. Han ez gendun in denpora asko, eurek frentea gogortu in euren, moro partidea ekarri euen ara. Handik gero atzerantza.

**Berton.-**Mandoen izenak edo akorduen dekozuz?

**Alejandro.-**Kia! Orduen kanbiau be asko kanbiaten euren. Geurea izan zan, Batallon Aralar, batallon Otxandiano be bata bestean ondoan egoten zen.

**Berton.-**Atzerantza zoazie-la norantza joan zintzien gero?

**Alejandro.-**Gero hortik atzerantza, atzerantza egunaro Ordunte partera, Balmaseda eta hortik gogor egon zen, frentea lotu in zen apur bet, eta mendi batzuk in geñuzan koxi, galdu eta koxi ostabere eta gero hortik Asturiasera.

Mieresen lotute egon zan hainbeste denporan be, han Francok topa euen gogor eta honek abioi alemanak eta italianok etor ziren, eta bonbardeo ostenan berriro jo euen ofensibe eta gu atzeratu egin gintzezan baia lengo postuetara etorri gintzezan Mieresera. Ha koxi, eta honek abiaziñoa atara

eurien gehiago, abiaziñoa asko euki euren honek.

Ordun komandanteak esauskuen, hau jausko da eta hemen kosten badoskue bizkaitarrei, betere ez gara lotuko eta horra ekarri euskun, Santan-



Alejandro Urrutikoetxea, Arbolantxan bizi da gaur egun.

derrera. Iluntzien koiu eta gaubez etorri gintzen. Desbandadea egon zen, kapitane eta joan egin ziren asko, barkuek egon ziren preparaute Santander aldiin, nok gure dauen joan, joateko barkuen.

**Berton.-**Eta zelán arrapau zintuzan?

**Alejandro.-**Santanderrean bertan napa-



Santa Marina bideko Grabiel Etxebarriaren baserria.

rrak eta alemanak koiu euskuen guri, eta Santanderetik Castroko txalet batera ekarri euskuen, ze etsaldiek hutsik lotu ziren. Han denpora gitxi in genun. Jose Tomás, Ramon Larrakotxekoek eta honek, eskapau in euren oinez basorik baso etxera.

Aitek be bisitau eustan birritan edo Castoron, eta baten ia garbitu in eutsien. Dirua batu pañelu baten batu dirue eta bota in eusten eta zentinelak ikusi eta zer dan ez dan eta tiro batzuk bota euzen hara. Ikusi eutsien eta pentsa eurien parteren bat edo ete zan.

**Berton.-**Denpora guzti horretan etxetik eta ezer jakin barik egon zintzien?

**Alejandro.-**Bai denpora luzean. Gero kartzelan ez nuen in denpora asko. Liburu bateaz etorten ziren pregunteka ¿Vd qué cargo ha tenido?, handik atara euzen hainbat "pena de muerte" eta, guk pentsaten geñun afusilako euskuela, eta "fulano de tal se va a fusilar" eta orduen ba Francoren alderdire eron euskuen Logroñora.

**Berton.-**Artxandako konbatie ezetu dozu?

**Alejandro.-**Egon enaz in baia hor asko hil ziren, bondardeoagaz eta ametralladorak eta barkuek bere min asko in eurien. Hainbeste urtetan egon dira kurtzeak eta lorak eta. Gure amak eta akabuen urten euren etsaldie itxite horra Begoñera joan ziren frontoiera.

# DURANGOKO AZOKAN BARRENA

Aurten ere, Durangoko azoka antolatu da euskal liburu eta diskoak jende-arengana hurbiltzeko asmoz. 34. azoka izan da aurtengo hau eta sei egunetan zehar eduki ditu ateak zabalik.



Gurea eta gainerako herri-aldizkariak ere euren lekutxoak eduki zuten Durangoko karpan. Baita arrakasta handia ere. Ale guztiak banantu ziren-eta.

☞ **Ioana Etxebarria**

Antolatzaileek eman dituzten datuen arabera 150.000 pertsona inguru gerturatu dira azokara, bai saltzaileak eta bai bisitariak ere pozik azaldu direlarik. Batzuk, Durangora, liburu edo diskoren bat erostera gerturatu dira bereziki eta beste zenbait egun horietan dagoen giro paregabeaz gozatzera.


Argitaletxe eta disketxeentzat guztiz onuragarria da azoka honetan parte hartzea; izan ere, bertan saltzen dutenaz gain beraien produktuen promozioa egiten dute gero liburudendetan saltzeko.

Bestalde, aipatzekoa da era berean, estatistikek diotenaren arabera nobedadeen artean %80 euskarazkoa izan dela. Gainera karparen barnean inoiz baino abeslari eta idazle gehiago ikusi ahal izan dira eta hurbiltasun honek nolabaiteko berotasuna ematen du dudarik gabe.

Ziur, jada badakizuena denok zein izan den libururik salduena baina badaezpada ere baten bat despistaturik balego, Joseba Sarrionaindiaren Hau da ene ondusun guztia izeneko liburu-diskoa izan dela jakinarazten dugu. Lan hau azokak azken urteotan izandako arrakastatsuen bihurtu da. Baina honetaz gain beste zenbait liburu ere aipatu beharko genituzke, hala nola, Jon Arretxeren Ostiralak, Harkaitz Canoren Pasaia Blues, Arantxa Iturberen Ai, Ama, edo Jon Idigorasen El hijo de Juanita Gerrikagoitia.

Gainera azokako stand batean, Santutxu auzoko Jose Ramon Etxebarria eta beste bost kidek Historia de una pancarta izenburupean kaleratu duten liburu ere aurkitu ahal izan da.

Momentu batez, liburuak alde batera utziz, diskoen artean arrakasta gehien eduki duena Xabier Amurizak



eta Tapia eta Leturiak elkarrekin egin duten Bizkaiko kopia zaharrak lana izan da.

Jende gazteari begira, aldiz, oso harrera ona izan dute Betagarri, Su ta Gar eta Berri Txarrak taldeek. Dena den, ume txikienek ez diete gurasoei horrelako diskorik erosteko eskatu, beraiek nahiago izan dituzte pailazoen kantu alai eta dibertigarriak.

Hurrez hitz egiten ari garela, hauek beraien txokoa eduki dute eta bertan liburuak ikusi eta irakurtzeaz


gain jolasteko aukera ere izan dute. Ze ederto zebiltzan denak alde batetik bestera saltoka!

Umeen gelatxo honetatik aparte karparen barnean kale desberdinak egon dira, horrela jendeak, sarreran banatzen zuten gida eskuan harturik bilatzen ari zen liburu edo diskoa errazago aurki zezakeen. Dena nahiko ondo antolaturik egon da eta egitarauari begira ekintza dexente antolatu direla aipatu behar da, hitzaldi, musika saio, bertso saio eta horrelako ugari

egon baitira. Esaterako, Lopategiri omenaldia egin zitzaion eta Benito Lertxundik kantaldi bat eskaini zuen.

Baina Durangoko azoka bukatu da eta hurrengo urtera arte adio esan beharko diogu. Hala ere, Interneteko sarearen bitartez urte guztian zehar azoka hau zure esku eduki dezakezu [www.durangokoazoka.com](http://www.durangokoazoka.com) webgunean.

Jende askok izan du kultura gunehonatan biltzeko aukera eta antolatzaileek balantze positiboa egin dute. Horrela atsedean labor bat hartu ondoren 2.000. urteko azoka gogotsu prestatzen hasiko dira.



**PRESOAK KALERA  
AMNISTIA OSOA!**

**SAAK**

**ANGEL**

HARATEGIA - URDAITEGIA



Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59



S.M. Ascension plazan  
Santutxu



# PILAR GIL

*Burgoseko herritxo batean jaio zen arren, hamasei urte zituela, garai-ko beste zenbait emakumek egin behar izan zuen modura, bera ere emigratu beharrean ikusi zen. Aurretik zituen planak iraulita, azkenean Bilbora etortzea aukeratu zuen. Euskal Herrira heldu zenetik hainbat lan ezbardinetan aritu izan da, hala ere etxeak garbitu izan ditu batik bat. Momentu honetan etxetik kanpo lanik egiten ez duen arren, Etxe-Langileen Elkarteko lehendakaria da, gogoz dabilelarik etxe-langile guztien eskubideen defentsan.*

↳ Leire Artamira / Argazkiak: Iñigo Azkona

**Berton:**Zergatik irten zinen jaioterritik?

**Pilar:** Orain dela lau hamarkadako egoera ekonomikoa ez zen ona, horrela aurrera ateratzeko zerbait egin behar nuela pentsatuta, hasieran Bartzelonara lagun batekin joatea erabaki nuen. Dena den, gure plan hauek aldatu eta Bilbora etorri nintzen bertan lagun bat nuelako eta ez zelako lanik falta.

**Eta etxean zelan hartu zuten erabaki hau?**

Nire aitarekin eztabaida handia izan nuen erabaki hau zela eta. Berak bostehun pezeta eman zizkidan baina argi utzi zidan hasieratik behin diru hura bukatzerakoan ez nuela etxera bueltatzerik izango. Oso haserre zegoen!

**Hala ere, zure planak aurrera ateratu zenituen...**

Bai, halaxe da. Izatez, momentu hartarako bostehun pezeta diru nahikoa zen, horregatik bitan pentasatu barik hemen nuen lagun horren bila etorri nintzen. Heldu bezain

laster lekuren batean egin behar nuen lan eta lo, eta horrela bilatu zidaten etxe batean egon nintzen denbora batez. Etxe honetan ez nintzen batere gustora egon oso nabaria zelako nagusi-langile arteko bereizketa. Gogoratzen dut nola etxeko edozeinek, txakurrak izan ezik, deitzen zidanean nik "Si seño-

**"[...] etxe-langileen eskubideen defentsan aritzen ziren taldeak edo sindikatuak bilatzen hasi nintzen ero baten modura."**

rita/o" esan behar niela. Hasieratik somatu nuen etxe batean lan egiteko tratamendu hori ez zegoela niretzat eginda. Horregatik, beste lan bat bilatzen nuen bitartean hantxe geratu nintzen.

**Eta ondoren zer egin zenuen?**

Etxe hartatik irten eta beste etxe batean egon nintzen lanean. Han ere erlazioa lanekoa bazen ere,

gizatasunez eta errespetuz tratatzen ninduten. Ordutik aurrera nire bizitzak buelta asko eman ditu: etxera bueltatu nintzen, berriro ere hona itzuli, sukaldari, jostun eta umezaintzan aritu naiz... Azken finean momentuan lanbideren bat bilatzen zutenean, nik haxe egiten nekiera esaten nuen. Geroago ezkondu eta Santutxura etorri nintzen bizitzera, bi seme-alaba izan eta alaba izan ondoren berriro ere lanean hasi nintzen, baina momentuan ez dut etxetik kanpo lanik egiten.

**Orduan nola sartu zinen Etxe-Langileen Elkartean?**

Etxeko lanetan bigarren aldiz aritu nintzenean, gizarte segurantzaren nahi nuelarik, etxe-langileen eskubideen defentsan aritzen ziren taldeak edo sindikatuak bilatzen hasi nintzen ero baten modura. Behin horren alde egiten zuen talde bat aurkituta batzarrak egiten hasi ginen, 1986.ean elkarte antolatuz.

**Zeintzuk dira zuen abiapuntu eta helburuak?**

**"[...] gainerako edozein langilek duen legedi berak arau gaitzala eskatzen dugu."**

1985.eko abuztuan Gobernuak etxe-enplegatuen lan baldintzak arautzen zituen Dekretu bat argitaratu zuen. Gaur egun oraindik ere indarren dagoen dekretu horrek ez ditu etxe-enplegatuen eskariak jasotzen: soldata egokia, atsedenaldirako eskubidea, oporrak, derrigorrezko gizarte segurantzaren...Horrela elkarte sortzean lan-baldintzak hobetzea eta etxe-enplegatuen lan-harremanak arautzen dituen Dekretua indargabetu nahi genuen, gainerako edozein langilek duen legedi berak arau gaitzala eskatzen dugu.

**Ze kanpaina, proiektu edo ekintza egiten dituzue elkartean?**

Gure elkarteak 1991.ean langileei euren eskubideak zeintzuk diren eta nola aldarri ditzaketen irakasteko dohaineko lege aholkularitza zabaldu zuen astero bitan. Horrela langileren batek lanarekin arazoak dituzenean konponbideak eskeintzen zaizkio, likidazioa egiten diogu, legez kobratu beharko lukeena esaten zaio, erreklamazioak egiten zaizkio euren nagusiei erakutsi diezaieten...Honez gain orain lege bat prestatzen ari gara, horretan burubelari dabiltzalarik taldeko hiru abokatu. Hasieran niri, egia esan, lege bat egitea oso erraza zela iruditzen zitzaidan baina orain argi ikusten dut ez duela inolako erreztasunik. Urtero ere gure egitasmoak ezagutarazteko kanpainak egiten ditugu, nire ustez politena orain bost urtekoa izanik: 112.000 izenekoa. Lehenik zenbaki hau zeramatzen peginatzen batzuk atera genituen,

beste ezer esan barik jendearengan jakinmina sortu zen horren esanahiaren inguruan. Zortzi egun beranduego erantzuna azaldu genuen kartel batzuetan: Hori izango litzateke legez etxe-enplegatu bati egokitzen zaion soldata.

**Baloratzen al da zulako beste emakume askok ere egiten duen lanbide hau?**

Ez, arrazoi askorengatik lan hau ez dago ez sozialki ez ekonomikoki baloratuta. Lan hau, batik bat, emakumeek egiten dute eta suposatzen denez beste emakume batek egiten duzula, nagusi batzuek behe-mailakotzat hartzen zaituzte. Hau, agian, antzina argiago ikusten zen. Gogoratzen dut nik lan egin nuen lehenengo etxetik joatekotan nengoela, bertako andreak nire maletak bere aurrean zabal nitzan eskatu zidala. Berea zen zerbait eramango ote nuen beldur zen. Nik lan honekiko mesprezu eta nirekiko deskonfidantza hura ikustean haxe erantzun nion oso haserre: «Lehenengo zabaliezazkidazu zure kaxoi eta armairu guztiak, zuk leku gehiago duzu nire gauzak gordetzeko eta».



**Aldatu al da emakumeon egoera?**

Nik neuk ez dut uste askorik aldatu denik. Ia etxe gehienetan oraindik ere etxeko lanak emakumeek egiten ditu, ez dira lanak banatzen eta gizonezkoek lan hauetako bat eginez gero beraien atzetik ibiltzeagaitik edo emakumeari «laguntzearren» da.

**Zer egin beharko genuke diskriminazioarekin behingoan bukatzeko?**

Askotan esaten dugu emakumeak garelako exijitu behar dugunak baina... tira!Beti izango gara emaku-

**Baserritik**  
 etxerainoko  
**OKELA ZERBITZUA**  
 Eskaearak egiteko:  
 - Telefonoa eta Faxa: 94 433 48 02  
 - Ordutegia: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara  
**E.H.N.E.**

**MENDIA**  
**BILBO 82**  
 Santutxuko poteo gunea

**GOIAN S.C.L.**  
**LAN BERTIKALAK**  
 Pintura lanak etsaurre eta patioetan  
 Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
 Eraikinetako edozein konponketa  
**ANDAMIO BARIK**  
 Telefonoa:  
 (94) 669 32 79  
 Mugikorra:  
 908- 45 16 22



tearen gainean ezarritako "maskara" bat baino ez da, berdintasun hori oraindik ez delako hainbat arlotan somatzen.

**Zer datorkizu burura Martxoaren 8a aipatzen badi-zut?**

Martxoak 8 urteko beste egun bat bezalakoa izan behar-ko litzateke, hau da, XXI. mendearen sarreran gaudela ez genuke zertan emakumearen eskubideak defendatzeko egunik izan behar, hori jadanik barneratuta eta konpon-duta euki beharko genukeen arazoa izanik.

**10 GALDERA LABUR**

**Abesti bat:** boleroen bat

**Liburu bat:** Isabel Allenderen *En el plano infinito*

**Pelikula bat:** *El clan de los irlandeses*

**Paisaia bat:** urrutira joan gabe, nire balkoia ireki eta egunero ikusten dudana (Txurdinaga)

**Pertsona batengan gehien gorroto du-da...** zuzentasun eza da

**Eta estimatu...** zintzotasuna, nahiz eta askotan egiak min egiten duen

**Ze albiste entzutea gustatuko litzaizuke?** Beste askoren artean negoziazioa egiten dela

**Itzi begiak, ze oroitzapen datorkizu burura?**

Nire haurtzaroa, nire amama...

**Ze irudi duzu begietan grabatuta?** Siete Campas-en nengoela, ama bat preso soziala zen bere semearekin elkartu eta «Ay, mi tesoro» esan zionean. Emakume hark hainbat gauza erakutsi zizkidan.

**Zer espero duzu 2000rako?** Justizia!

meak pelikulako gaiztoak? Gizonezkoak beste gauza askotan inork ezer esan gabe gaurkotu egiten dira eta bete behar dena ikasten dute, orduan zergatik ez dute euren jarrera arlo honetan ere aldatzen? Argi dago, guk zerbait egin behar dugula honetan, baina eurak izan beharko lirateke honekin bukatzeko bideak aurkitu eta praktikan jarri beharko luketenak. Gizarte modernoak osoa, konpletoa izan behar du, orain arte gizonek eta emakumeek bakoitzak bere aldetik eginikoa pertsona bakar batek egiten jakin beharko luke. Askotan entzuten dugu berdintasun kontzeptua, baina hauxe horrela esanda oso polit geratzen den arren, gizarteak errealita-

I N K E S T A

**NORI OPARITUKO ZENIOKE IKATZA?**

**AINARA GONZALEZ SANTUTXU**

"Aita Santuari, glukosa igo eta indarra berresku-ratzeko. Modu honetan Jainkoaz gain, Olentze-roan ere sinistuko du."




**ORZURI ETXEBARRI SANTUTXU**

"Nire etxe azpian obrak egiten ari direnei. Igande goizean lan egitea ere!"




**EKAIN BILBAO TXURDINAGA**

"Euskal preso politikoak gartzelan dituzten buru-gabe horiei, eta bake prozesuan ezer egin ez dutenei, Espaniar estatuari. Sorpresarekin ahal bada..."



**JON GONZALEZ SANTUTXU**

"Estatuko agintari guz-tiei, euren jarrera fas-zistagatik."



**ENERITZ PEREZ SANTUTXU**

"Jende askori, baina besteak beste Mayor Orejari, nahiz eta hori ere merezi ez duen arren!!!"



**LORE BILBAO SANTUTXU**

"Orokorrean telebis-taren promozio ardu-nei; ea horrela, pixka bat hobetzen duten euren eskeintza."



**NEREA ERKIAGA LEKEITIO**

"Olentzerori, berak ere pasadan urtean ikatza paritu baitzidan."

**TXOMIN URKIZA SANTUTXU**

"Mayor Oreja eta bere lagunei, Euskal Herria bakean ez uzteagatik. Hala ere, ikatzik ere ez dute merezi."



A R K A R K A R K A

 **PUNTAKO KIROL MARKAK**

**SANTUTXU SPORT**

**KARMELO, 9**  
**Tfonia: 412 37 01** **SANTUTXU**

 **MESÓN URETXE**

*Santutxuko poteo gunean*

**DAYTON**  
**Reagge-festa taberna**  
*Santutxuko poteo gunean*



# MAHATSBERRIAK

## Mahatserrian azkenokaz izan direnak

### LIZARRA-GARAZI TXIKIA

Abenduaren hasieran, San Franziskito elizaren lokaletan Santutxuko Lizarra-Garaziko taldearen aurkezpena egin zen. Aurkezpen hau, kultura eta kirolarekin harremana zuten taldeentzako zuzendua zegoen. Aurretik, eskola munduari zuzendutakoa burutu zuten eta ostean elizari zuzendutakoa. Aurkezpen honetan, HB eta ELAko ordezkariak parte hartu zuten. LAB eta Ezker Batukoek, aldiz, ezin izan zuten bertan egon. Hitzaldian, besteak beste, Lizarra-Garaziren aurrekariak eman ziren eta talde honen sorreraren zergatiak azaldu zituzten.



Hizlariak, Lizarra-Garaziko akordioak zuen garrantzia azpimarratu zuten.

### GIZARTE ESKUBIDEEN ALDEKO PLATAFORMAREN AURKEZPENA



Gizarte-eskubideen gutunaren gora-beherak azaltzen dituen foiletua.

Maria Reina elizako konferentzia gelan, gizarte eskubideen aldeko Santutxu-Boluetako taldearen aurkezpena egin zen. Gogoratu beharra dago, gizar-

### ELKARTEETAKO HAUTESKUNDEAK

Auzo ezberdinetako distritu kontseiluetan ordezkariak berrizatu egin da. Honela, Begoñako distritu kontseiluan, nagusien ordezkaria Begoñako jubilatuen elkarteak izango da. Distritu honetan, Santutxuko familia elkarteak eta Parroco Unzetako auzokideak aurkeztu dira.

Otxarkoaga-Txurdinagakoari dagokionez, aurten ere, Otxarkoagako familia elkarteak eramango du auzo ordezkariak. Honetan, honakoak aurkeztu dira: Biharko, Otxarkoagako jubilatuen elkarteak, Beharleku, Baga-

te-eskubideen aldeko herri ekimenak solidaritatezko ibilaldia martxan izan duela Azaroaren 13tik 27ra bitartean. Martxa honen bidez, eskakizun bitan oinarritu dute gizarte eskubideen gutunean eskatutakoa: lagun bakoitzeko lanpostu bat eta langabetu bakoitzari hilean 83.000 pezetako gizarte soldata ordaintzea (lanbidearteko gutxieneko soladaren berdina). Gutun hau, 100.000 pertsona baino gehiagok sinatu du eta lege bihurtzea planteatzen dute. Azaroan, ponentzia parlamentarioa aurkeztu zuten nahiz eta otsailera arte ez den parlamentuan eztabaidatuko. Aurkezpen hitzaldian adierazi zutenenez, Santutxu eta Boluetan hainbat erakundek bat egin du eskakizun hauen alde: sindikatu guztiak, auzokideen elkarteak, SOS Racismok, emakumeen taldeek, Kristau komunitateek etab-ek.

Gizarte-eskubideen aldeko taldeko ordezkariak, jendeak soldata sozialari buruz hitz egitearen beharra azpimarratu zuten. Ordezkariak azalpenak eman ondoren, arazo sozial honi buruzko eztabaida eta galderak egin ziren bertan bildutakoan artean.

biltza eta Kirikiñoko guraso eta ikasleen elkarteak. Auzoetako arazoak hilean behin eztabaidatzen dira udaleko plenuan. Bertan, talde politikoetakoak eta distritu kontseiluko elkarte ezberdinetako partaideak biltzen dira. Hemen, jarduera komisio bitan banatzen da: teknikoa eta soziokulturala. Lehenengoan, Udalak auzo bakoitzari emandako aurrekontua kontutan izanik, lehenetsuneko obrak erabakitzen dira. Soziokulturean, zentru munizipalei eman dakiekeen erabilpen kulturala eta soziala antolatzeaz arduratzen dira.

### IRAKASLE KALERATUEN LIBURUA

Karmelo Ikastolan, Jose Ramon Etxebarriak eta Jesus Mari Zalakainek *Historia de una pancarta* liburua aurkeztu zuten. Azpi izenburua, *la lucha por el profesorado propio en la UPV (1988-1999)* da eta Arabera argitaletxearen bidez kaleratu dute. Liburuaren diseinua Esteban Montorio santutxutarrak egindakoa da eta azala Erramun Landa Arte Ederretako irakasleak marraztu du.

Liburua, kaleratutako sei irakasleen historia da. Argi utzi zuten, liburu kolektiboa da; eurek, euren ikuspuntutik kontatutako historia. Liburu hau idaztearen zergatia borroken erreflexioa egitearen beharra litzateke. Aurkezpenean adierazi zutenenez, irakaslego propioaren aldeko borrokan, beste borroka guztietan bezala hausnarketa bat egin behar da. Eta eurek hausnarketa hori, "Historia de una pancarta"-n egin dute. Hori bai, beraiek esan zutenenez erreflexioa egiten dute jendeak ere pentsa dezan.



J.R. Etxebarria eta J.M. Zalakain liburuaren aurkezpen egunean.

### HAUR ESKOLA BERRIA OTXARKOAGAN

Hemendik aurrera, Otxarkoagako zero eta hiru urte bitarteko umeez eskola berria izango dute. Francisco de Goya ikastetxe publikoan kokatuko da eta 25 haurrentzako lekua izango du.

Bilboko udalaren ekimenez sorturiko eskola honek, adin eta garapen mailaren arabera gune ezberdinak izango ditu. Honela, zerotik urte batera bitarteko haurrentzat 10 sehaska dituen gela bat edukiko dute. Hamabost hilabete eta bi urte bitarteko haurrek, aldiz, katuka ibiltzeko eta jostatzeko areto bat izango dute. Eta nagusienentzat, euren adinari dagozkion jarduerak jarriko zaizkie.

Eskola, goizeko 7,30etatik arratsaldeko 18,30etara bitarteko ordutegia izango du. Hala ere, haurrak hainbat arte bertaratu ahal izango dira eta lauretatik aurrera baita ere.

Haur eskola berriak, umeen kargu egoteko lau profesional jarri ditu. Gainera, era berean, gurasoen eskola ere irekiko du. Honela, bilera ezberdinak eginez eta egunero aktibitateetan gurasoen kolaborazioaren bidez, umeen heziketari buruzko gaiak jorratuko dituzte.

### "KABI GOITIA BERTSO PAPER LEHIAKETA"

Aurtengo "Kabi Goitia bertso paper lehiaketa" Iñaki Aurrekoetxea santutxutarrak irabazi du. Deustuko Matxintxu AEK euskaltegiak antolatzen duen lehiaketa honen bosgarren edizioa izan da aurtengoa eta "Bedeinkatua izan dadila" izeneko bertso sortarekin irabazi du Bertoneko kolaboratzailea den Iñakik. Iaz ere txapeldun atera zen lehiaketa berdinean eta bere aburuz, garrantzitsuena jendeak bertsoak ezagutzea da, aurtengo "Kabi Goitia" sariketaren aurkezpenean adierazi zuen bezala.



Bertsolariak saio entretenigarria eskaini zuten.

### BERTSO SAIOA TXURDINAGAN

Pasa den Azaroaren bukaeran, Txurdinagako Gabriel Aresti institutuan bertso saioa ospatu zen. Bertan, Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano, Xabier Amuriza eta Millan Telleria aritu ziren kantari. Bertan bildutakoek, bertso saio eder eta dibertigarri batetaz gozatu ahal izan zuten. Saioa, Kirikiñoko bertso eskolakoek antolatu zuten.

## AUZOEI BURUZKO IKERKETA

Euskal Herri mailan egindako ikerketa soziologiko batek aipatzen duenez, bazterte egoera larrienak Bilbo Zaharra, Otxarkoaga, Simondrogas, Arriagas, Pasai Antxo eta Trintxerpe auzoetan pairatzen dituzte.

Otxarkoagari dagokionez, bizi diren 12.869 biztanleetatik % 46,21 a langabezian dago (EHko auzoetan aurkitzen den portzentaia altuena). Bestetik, ikasketa gabe edota ikasketa primarioekin %74,01 a aurkitzen da eta pertsonako 20 metro karratu baino gutxiago duten etxebizitzak % 51,69 a dira.

Bestalde, eta Bilboko auzoei buruzko beste ikerketa batean zentratuz, Txurdinaga 16 urtetik beherako biztanle gehien duen auzoetarikoa bat da. Honekin batera, etxebizitza nahiko berrietan bizi dira (1980-1990 urteen tartean eraikitakoak); 3-5 kideko familiak eta 35-44 urte bitarteko jendea bizi da; erdi-goi mailako ikasketak dituzte eta zerbitzuen sektorean kokatuta daude.

Santutxun, aldiz, 65 urtetik gorako biztanlego kopuru altuena biltzen da.

Enpresa alorrean, esan beharra dago Abando eta Alde Zaharraren 15.000 kontzentratzen diren bitartean, Txurdinaga eta Otxarkoagan 1.000 besterik ez direla biltzen.



Txurdinaga auzo berri eta gazte bezala agertzen da.

## Metro sarrera berria Alde Zaharra eta Santutxu artean


Bizkaiko garraio partzuergoa metro sarrera berri bat irekitzearen beharra aztertzen ari da. Sarrera hau, Iturribide kalean kokaturik joango litzateke. Proiektua, ezkerreko obrak bukatu ondoren martxan hasiko litzateke. Sarrera honek, Santutxuko geltokiarekin bat egingo luke eta 4.000 pertsonatik gorako biztanleko zati baten beharrak asetuko litzuzke.

Udalean ekimen hau onartu egin dute. Honetaz gain, udaleko plentutik, Eusko Jaurlaritzari Rekalde eta Otxarkoagako auzoei zerbitzua eskainiko dien linea eraikitzeako konpromisua eskatu zioten.



Karmelo kaleko igogailua.

## ARBOLANTZAKO AUZOKIDEAK KEXU



Arbolantza bideko 21 zenbaki-koek arazoak bata bestearen atzetik dituzte. Ibarsusiko autobideak etxea inguratu eta horrek dakartzan espropiazioak

bateko, eta alboan egiten dabilzan etxe berriak besteko, ez diete bakerik ematen. Urbe-handiak gero eta terreno gehiago kentzen die alde guztietatik.

## GABONAK SANTUTXUN

Egun hauetan, eta azken urtetotan ohikoa bihurtu den bezala, komertzianteen ardurapean geratu da gabonetako hornidura. Dendariak akordio batetara heldu diren kaleak izango dira gabonetan argiztaturik azalduko direnak.

Santutxuko dendarien elkartearen hurrengo urterako helburua, kale guztietan gabonetako argiak izateko akordio batetara heltzea da. Helburu berdinarekin beste ideia batzuk ari dira gauzatzen; besteak beste, komertzianteez ez ezik auzokideek ere laguntza eskaintzea. Dena dela, aurtengo argiztapena Abenduaren hasieratik Errege eguna bitartean piztuta egongo da.

Gabonei dagokionez ere, baina beste gai bati helduz, Abenduan Santutxuko erakustokien zarpigarraren edizioarekin egingo dugu topo. Abenduaren 9an hasi eta 24ra bitartean erakustokien erakusketak izango da. Hau dela eta, egun hauetan erakustokiak gaueko 10ak arte argiztaturik egon beharko dute. Denbora tarte hau igaro ondoren, dendarien elkarreko batzorde kudeatzaileko kideez eta erakusto-



kien tekniketako profesional batez osaturiko epaimahiak irabazlea erabakiko du. Honetarako, irudimena, argiztapena, mezu publizitarioaren eragingarritasuna eta erakustokiaren kalitatea kontutan hartuko dira.

Azken erabakia apelaezina izango da eta 2000. Urteko Urtarrilaren 15 a baino lehenago jakinaraziko da.

## ARANTZA BIFIDOAREN INTEGRAZIOAZ KONTZIENTZIATZEKO FESTA

Bizkaiko Arantza Bifidoa eta Hidrozefalia elkarteak deituak, gaixotasun honi buruzko kontzientzia hartzeko festa ospatu zen Berrio-Otxoa ikastetxean. Biztanlegoari, nerbio-sisteman, gernu eta ernaltze sisteman eta aparatu lokomotorrean eragina duen sortzetiko malformazio honi buruzko informazioa eman zen.

Bizkaian, 200 ume eta gazte baino gehiagok sufritzen dute gaixotasun hau. Eskolan, eta lan munduan integrazioa lortu asmoz eta prebentzio posibilitateez informatzeko burutu zen ate irekietako ihardunaldi hau.

Goizeko hamaiketan hasi eta arratsaldeko hirurak arte, ume eta gazteek eskulan tailerrak, playstation jokoa, karaokea edota irrati bidez kontrolatutako kotxeak izan zituzten ondo pasatzeko modua. Giroa, pailaso eta magoek alaitu zuten.

Integrazioaren festa gaztea deituriko honetara, Bizkaiko ezindu fisikoen talde edota elkarte guztiak gonbidatu zituzten.

## ARGAZKILARI ORIGINALA

Iñigo Azkonak, aldizkari honetako argazkilaria, seilu erakusketak "berezia" antolatu du Santutxuko taberna batean.

Arte Ederrak eta Ikusentzenezkoak bukatzeaz dagoen gazte honek sei hile daramatza lan honetan: argazkiak atera eta hauen bitartez seilu "ofizialak" sortzen.

Hasieran Correos zein Estatu botereari kritika egitea zen bere helburua, baina azken aldian joko bat balitz bezala hartu du, lagunei eskutitzak bidaltzen baitizkie bakoitzaren izaera seiluetan isladatuz.



**TXAHAL APARTA ETA ASAPALA ELKARTEEN ESKUTIK JAIALDIA** Azaroaren hamahiruan euripean "TXALAPARTA EGUNA" ospatu zen Santutxun, hala ere hainbat jende hurbildu zen bertara.

Goizean kalejira batekin hasi eta gabealderaino hainbat ekitaldi eman ziren, Txalapataren inguruan gehienak.

Karmeloko plazan, txistulariak, gaiteroak eta txalaparta talde desberdinek parte hartu zuten - Santutxu, Rekalde, Galdakao, Sestao, etab.,...- .Aipatzeko dira besteak beste, Baztango Kirikoketariak (euren erritmoak lan doinueta oinarritzen zituztenak); Felipe Ugarte hernaniarra, zeinek jendearen txaloak bereganatu zituen; Etzak Etsi galdakaoztarrak, eta Hala Zippo barakaldarrak.

TXALAPARTA ZOZKETAREN ZENBAKI SARIDUNA 101



**jo ta ke**  
**Otxarkoaga**  
**euskaldundu arte!**  
**Pa... Yak baditu alternatibak**  
**demokratikoak noski!!**

# Din Don Dan, Din Don Dan gabonak dira!

⇨ Irune Berro

Iritsi dira jada gabonak. Konturatu orduko mahatserriko hainbat kaleetako ortziak argiz josiak daude, dendetako erakustokiak argi eta kolore biziz betetzen dira ea zeinek gure arreta hobe lortuko, etxeko postontzietan ohi baino propaganda gehiago dago eta telebistako iragarkietan umeak dira protagonista.

Orduan gabonak gainean ditugula ohartzen gara. Aurten spiderman panpinen bilduma berria dago merkatuan, baina batek ere ez du aramu itxurarik, hori bai, denak oso sendoak dira eta aurretik ipintzen zaion guztiarekin akabatzeko haserre aurpegia dute.

Denek dakigu gabonetan opari asko egin behar ditugula eta umei nola ez, jostailuak. Umearen garapen egokiagoa ziurtatuko duten opari mota asko dago: puzzleak, liburuak, bideo eta audio zintak, azkenengo hauek erabiltzeko gailuak,...Baina askotan ez diegu horrelakoei kasu handirik egiten. Nahiago izaten dugu mila argi eta soinudun tramankulua edota kaka, txisa, negar eta estula egiten dituen panpina.

Hau horrela izanik, pentsatu dugu noizbait mota honetako jostailuek dituzten eraginak?

Jostailu bat oparitzea jolas eta munduaren ikuspegi bat ematea da. Jolasaren bitartez umeek usantzak eta erizpideak berengantzen dituzte, beraz, ze nolako ohitura edo erizpide jaso dezakete polizi kotxe batez edo eskuan rifle bat duen panpin batez?

Nahigabe edo nahita sexuaren araberako opariak egiten ditugu sarri. Mutil bati baloi



edo Power Ranger bat oparitzen diogun bitartean, neska bati panpin negarti edo mini azokatxo bat erosten diogu, era honetan, gaur egun sexismoa eragiten duten rollak areagotzen direlarik.

Agian konturatu gabe, indarkerian eta emakumeenganako diskriminazioan oinarritutako mundu bat ari gara eraikitzen, beraz, garai kontsumista hauetan inoiz baino gehiago zuen jarrera aztertzeraz gonbidatzen zaituztet.

ETA AHOLKUAK LUZATU ONDOREN, ZORIONAK ETA URTE BERRI ON DANOI!!

ONDOREN MAHATSERRITARROK, KONTUTAN HARTU BEHARREKO AHOLKUAK:

- Jostailuaren balioak ez du zerikusirik prezioarekin ezta mekanismoaren konplexutasunarekin.
- Ez da egokia umeak jostailurik ez edukitzea, ezta gehiegi edukitzea ere.
- Saia zaitetz adin bakoitzeko jostailurik aproposena bilatzen, horretarako etiketan begiratu edo saltzailearekin hitz egin dezakezularik.
- Kontutan izan guraso, izeko-osaba edo lagunik onenak ez direla opari gehien egiten dituztenak.
- Tuntu handiz ibili ezer erosterakoan, denda asko abenduan ireki eta urta rrilean isten baitituzte.
- Azkenik, eskatu beti erosketaren ziurtagiria eta ez ezazu bota denboraldi batez.

  
ekilore  
Iturriaga, 92 Santutxu

**BASTERTXU**  
  
**TABERNA**  
Ricardo Bastida plaza

**Gelaya** INMOBILIARIA  
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA-SALMENTA - ALOGERAK - ...  
Iturriaga, 92  
Tfona. 94 473 07 78  
48004 SANTUTXU - Bilbo

  
Biktimganako Laguntza Zerbitzua  
Servicio de Asistencia a la Víctima

*Zeurekin gaude*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE  
SEGURANTZA SAILA  
Gize Eskubideen eta Justiziarikiko  
Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Dirección de Derechos Humanos  
y Cooperación con la Justicia

## "EUSKERA EGUNA", KARMELO-SOLOKOETXE INSTITUTOAN



Ikasleak osatutako euskara batzordea

### Zer dela ta "Euskeraren Eguna" ikastetxe euskaldun batean?

Gure neska mutilek, jakin badakite euskaraz, baina inguruko giro erdaldunek eraginda edo, beraien artean eta batez ere ikastolatik kanpo gazteleraz barra-barra aritzen dira. Joera hori oso hedatua da Bilbo inguruko beste ikastola eta ikastetxe euskaldunetan ere eta beraz ez gaitu harritzen, baina onartu ezina deritzogu eta ondorioz, urjentziz aldatu beharra.

Gai honi buruz egiten ditugun hausnarketa eta burutazioetan ikasleek ez dute dudarik egiten Euskararen egoera larria aitortzeko eta gutxiago gure hizkuntzan mintzatu beharra onartzeko. Areago, teorikoki desegokitzat jotzen dute beraien jarrera. Hala ere, guzti hori ez da nahikoa beraien jokaera aldatzeko. Konturatu gabe, ohituraren ohituraz, behin ta berriro gizartearen dominante den hizkuntzara jotzen dute.

### Ohiturak aldatzeko ahalegin gisara ulertzen al duzue?

Bai. Iraultzetaz praktika eragin nahirik proposaturiko inizatiba dugu. Bazterrak astindu eta gazteria esnatzeko ordua heldu dala iruditzen zaigu. Konturatu behar dira horrela ezin dugula jarraitu. Bide horretatik gure galmena dator. Martxa hontan, "Hika" taldeak antzeztan

duen gisara, gure seme alabek "Euskararen museoa" bisitatzera joango dira. Eta ez gaude prest Euskal Herriak duen bere altxor preziatuena galtzeko. Dena den, ohitura horiek aldatu ditzaketan bakarrak beraiek dira. Irakasleok edo gurasoek lagundu diezaiekegu baina azken finean beraiek dira jarrera aldatu behar dutenak. Gazteen esku dago erabaki tinkoa hartu eta euskaraz mintzatzeko era bideratzea.

### Zertan datza aipaturiko jaiak?

Hasteko, argitu behar dugu gure ekintza ez dela egun batera mugatzen, "Euskararen Egunak" edukiko duen garrantzi berezia ukatzen ez badugu ere. Urtean zehar, neska mutilen arteko ohiturak sakonki iraultzeko asmoz, hainbat ekimen antolatuko ditugu, deigarriena baina ez bakarra, hauxe izanen dugularik.

Egun seinalatu horretarako "Santo Tomas" data aukeratu dugu, goizetik arratsaldera gauza ezberdinak antolatuz. Hala nola, ikasgela bakoitzak bere "Neska edo mutil euskaldunena" aukeratuko du; "Solokoetxe idatz bertso lehiaketa"ko txapeldunak ezagutu; Arkaitz Estiballes eta Leire Bilbao bertsolariekin saio eder bat egin; Mikel Urdangarin abeslariarekin gozatu; beraiek egindako "Berbaixu" aldizkariaren aurkezpena; 13 urteko ikasle batek prestatutako kanta abestu; eguneko usadioak


jarraiki txistorra eta taloa janaz bazkaldu; eta arratsaldean herri kirolaz zein musikaz blai egin ondoren txokolatada mundiala izango dugu.

Jai horretarako neska mutilek aukeratu duten leloa zera da: "Zazpi herrialde, hizkuntza baten alde".

### Ikastetxearen ala ikasleen jaiak izango da?

Dudarik gabe, neska-mutilek. Beraiek dira antolatzaile nagusiak eta batez ere beraiek dira protagonista. Irakasleok soil-soilik «laguntzaileen» papera eta funtzioa egin nahi dugu.

Helburu horrekin, Urriaren hasieratik, buru belarri lanean dihardute. Ikastetxearen barnean bi "Euskara Batzorde" daude: bata irakasleena eta bestea ikasleena, zeinean 50tik gora ari diren lanean. Horien artean dagoen ilusioa beste guztiei «kutsatu» nahi genieke: Euskaraz ta kitto !!! Aldarrikatuz.



Karmelo Ikastolako gazteok egindako Olentzero

### Izan zen... "EUSKERA EGUNENKO" EGITARAUA (Abenduak, 21)

8,30 - 9,00: Ikasgela bakoitzeko "Miss edo Mister Euskara" aukeratu  
9,00 -11,00: Santo Tomas feriara joan etorri laburra bezain gozoa.  
11,00 -12,00: Mikel Urdangarin abeslariarekin kantaldi mundiala.  
12,00 -12,30: Atsedendia.  
12,30 -14,00: Sarien banaketa eta bertso saio bizi bizia:

- "Miss edo Mister" aukeratuak izan direnei txalo zaparrada eta saria.  
- "Solokoetxe bertso idazkien lehiaketa"ko txapeldun

sariak.  
- "Zazpi Herrialde, hizkuntza baten alde" lelo asmatu zutenei saria.  
- Egun honetarako bereziki asmatutako abestia kantatuko digute.  
- Leire Bilbao, Arkaitz Estiballes eta Iñaki Aurrekoetxea bertsolarien txanda.

14,00-15,00: Herri bazkaria. Propioki Nafarroatik ekarritako txistorra dastatzeko aukera ezin hobea.  
15,00-16,15: Herri jolas eta jokoak. Amaitzeko, "txokolatada berezia" guzti guztientzat !!!



# BILBOKO PILOTAK BEHAR ZUEN BULTZADA

☞ Unai Cuevas

Azken urteotan pilotak gora-behera ugari izan ditu Bilbon. Hamaikada honen hasierako egoera ez zen oso aproposa pilotaren sustapenerako: Pilota klub ezberdinak zeuden euren artean inolako harremanik izan gabe; instalakuntza ezak,



Artaben egunero entrenamenduak eta asteburuoro partiduak egoten dira.

gazteak Bilbotik kanpoko taldeetara bultzatu zituen eta instituzioek ez zuten behar haina laguntza eskaintzen. Laburbilduz, Bilbo barneko pilotak atzerakada etapa bat bizi zuen.

1995 tik aurrera, federazioak pilota goruntz eramateko konpromezua hartu zuen eta egoera hobetuz joan zen: monitore taldea osatu zen, ikastetxeetako pilota arduradunaren figura sotu zen, pala eta eskuzko eskola ezberdinak martxan jarri ziren ....

Gauzak honela, 1998. urteko egoerara heltzen gara. Gauzak hamarkadaren hasieran baino hobeto egonik, geldialdi fase bat nabaritu zen. Eta geldiune hau gainditu asmoz, Bilboko klub ezberdinak bildu ziren guraso eta ikastetxeetako arduradunekin batera. Helburu zehatza zuten: Bilboko pilotaren aktibitate guztia biltzen duen taldea osatzea. Bilerak desberdinen ondorioz BILBAO-PILOTA ELKARTEA sortu zen. Elkarte honek, aurreko urteetan federazioak egindako lanari jarraikotasuna eman behar zaiola uste zuen eta klub handi bati dagozkion lana bere gain hartu zituen. Erakunde honi, behetik hasiera da gehien interesatzen zaiona, Bilbon pilota zuzpertzera eta bultzatzea biltzen baitute. Oinarria landuko dute umeetatik pilotarako grina sortu asmoz ; txapelketak irabaztea alde batera utzi gabe. Kantitatearen aldeko apostua egin nahi dute, kantitateak kalitatea ateratzen du.

Elkartea osatu zuten guztiek pilotarekin nolabaiteko harremana erakusten dute: pilotazaleak direlako edota pilotari gazteen gurasoak direlako. Azken fine-

an, urteotan Bilbon pilotaren alde borrokan aritu diren pertsonak dira.

Zuzendaritza, aurretik Bilbon egondako beste taldeetako zuzendaritzako partaideek osatzen dute; momentu konkretu batean pilotaren interesak defendatu asmoz talde

bakarrean bildu direnak.

BILBAO-PILOTA ELKARTEAK federazioa eta Bilboko UKEaren arteko akordioei esker, frontoi ezberdinetan entrenatzeko eta jokatzeko orduak lortu dituzte.

Orotara, hiriko leku ezberdinetan kokaturik dauden 5 pilotaleku erabiltzen dituzte: La Esperanza (esku-pilotarako), Errekalde eta Txurdinagako kiroldegia ( palarako), San Inazio (esku-pilotarako) eta Artabe (pala eta esku-pilotarako).

Pilotaleku hauetan 100dik gora gazteak entrenatu eta jokatzen dute aste osoan zehar; maila guztietan banatuak, benjaminetatik hasi (8-9 urte) eta senior mailaraino (18 urtetik gora). Eskuzko partiduak larunbat arratsaldeetan jokatzen dira La Esperanzan eta pala partiduak igande goizeetan Artaben. Partidu hauek, eskola arteko nahiz federatuen arteko partiduak izaten dira.

Gazte hauek gidatzeko eta pilotan era egokian hezitzeko, frontoi eta modalitate bakoitzeko monitore bana izaten dute. Hasieran, hauek objektoreak ziren eta prestazio soziala pilotalekuan burutzen zuten. Baina hori aldatzea lortu dute eta orain ordaindutako monitoreak dira.

Diru sarrera edo finantziaketa bide eta era ezberdinetan lortzen dute. Batetik, urtero 1000 pezeta ordaintzen duten 200 bazkide kolaboratzaile dituzte. Hala eta guztiz ere, bazkideak egiteko denbora gutxi erabili izan dutenez, hemendik eta urte batetara 1000 bazkide kolaboratzaile izatea espero dute.

## Kantitatearen aldeko apostua egin nahi dute, kantitateak kalitatea ateratzen

Beste diru sarrera, pelotariengandik jasotzen duten dirua da. Pelotariak ( federatuek zein eskolen arteko txapelketetan aritzen direnek), hilero 1000 pezetako kuota ordaintzen dute.


Bestalde, momentu honetan sponsor eta babesleak bilatzearen fasean aurkitzen dira eta batez ere, euren irudia pilotarekin lotu nahi duten enpresa, komertzio eta partikularrak bilatzen dituzte.

Laguntzen eremu honetan, pilota elkarte berri honetatik udala ( gazteria eta kirol saila), UKE eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren laguntza azpimarratu nahi izan dute. Instituzio hauei esker, lehen aipatu 5 pilotalekuan entrenatzeko eta jokatzeko orduak lortu dituzte. Gainera, Txurdinaga-Otxarkoaga inguruan pilota aktibitatea bultzatzeko egindako ahalegina aipatzeko da ere, Artabe institutuak izandako ospea

aldatzeko pilotaren aldeko apostua eginez.

BILBAO-PILOTA ELKARTEA-k orain arte egindako lana aipagarria izan bada ere hemendik aurrera egin beharrekoa are garrantzitsuagoa izango da. Gure kulturarekin hain loturik dagoen kirol honen egoera oso larria izan da Bilbo bezalako hiri batetan, baina eratu berri den erakunde honi esker pilotarenganako grina areagotzea eta pilotaren zuzpertzaldia eta gorakada ikustea espero dugu denok. Mahatserriko aldizkari honetatik, gure auzo ezberdinek izan duten garrantzia eta eragina ikusita (bai instalakuntza aldetik baita pilotari eta pilotazaleen aldetik), animo dei bat hedatzea besterik ez zaigu geratzen. Abestiak dion bezala : etorkizuna gure esku dago itxaropena baldin badaukagu ... Eta Bilbo inguruko pilotaren kasuan itxaropen handiak daude jarrita.

## TOTORIKA-URIARTE ETORKIZUNEN BIKOTEA



Beñat Totorika (ezkerrean) eta Unai Uriarte (eskuinean) iazko Euskadiko pala txapelkunak.

Argi dago, bere lana harrobian oinarrituko duen eskola berri honek etorkizuna baduela. Honen adibide argia, Beñat Totorika eta Unai Uriarte-k osatutako bikotea dugu ; lazko Euskadiko narruzko pala txapelketa, Tolosako Beotibarren irabazi baitzuten. Aurretik, Sopelan jokatutako Bizkaikoa ere eskuratu zuten.

Biak santutxutarrak dira eta 15-16 urterekin etorkizuna dutela ezin daiteke zalantzan jarri. Beñat-ek, urte pare bat besterik ez darama palan jokatzen ; Unai-k, aldiz, lau urte baino gehiago (aurreko urte-

etan Alonsotegiko pilota eskolan aritu izan zen). Astean hirutan entrenatzen dute eta aurtengo denboraldia iazko baino zailagoa ikusten dute maila igo baitute (kadete izatetik jubenetara pasatu dira).

Unai, bera atzelaria izanik Juan Pablo pilotaria du gustokoen eta Beñatek Insausti aurrelaria. Totorika-Uriarte bikoteak, pilotari izena izateaz gain, badu Euskadiko txapelketa bat. Eta ilusio handiz hasi berri den pilota eskola , are eta gehiago lortu dezakete.


# UNTZILAITZ [941 M.] MAÑARITIK

Durangotik Mañarirantz joan ginen eta herri honen sarre-  
ren, harrobitik apur bat aurre-  
rago basiliza handi bat dago  
eskuma aldean, eta beronen  
parean baina ezker aldean  
zubi bat pasatu behar dugu  
erreka zeharkatzeko, bertan  
baserri handi bat dago, base-  
rri honetan ogi berezia egiten  
dute asteburuetan, baserria-  
ren aurrean utzi genuen kot-  
xea.(A)

Zuzen joanda laster hasiko  
da igoera gogorra, bost minu-  
tura inor bizi ez den baserri  
batetik igaroko gara,  
berrehun metrotara «Larrea-  
Kanpaneta» izeneko baserria  
utziko dugu eskuin aldean,  
baserri honen goialdean  
dagoen larra baten gainean  
etxola zahar bat ikus daiteke  
eta harantz joan beharko  
dugu.

Etxola (B) ondotik doan pista-  
tik igongo gara aldapa gogo-  
rrean eskuin aldean pinadia  
eta ezker aldean pago eta  
haritzak ditugula, hauek  
igaro eta gero Fraileburuko  
(C) harritzaren inguruan aur-  
kituko gara. Harritzaren  
ondoan ezker aldetik oso  
ondo markatuta dagoen  
bidezka batetik igongo gara,  
arte batzuen tartetik pasatu  
eta gero Oraieta mendiko lepoa  
(D) 540 m.- gaindituko dugu.  
Hegiatik paraleloki eskuin  
alderantz joanda, ia beti harri  
tarteetan, pagadi batera heldu-  
ko gara, pagadiaren goialde-  
an aurkitzen garenean eskuin  
aldera eta gorantz joko dugu  
eta berrehun bat metrora aur-  
kitzen da tontorra: Untzilaitz  
(941 m.)

Igoera osoa ordubete eta  
hogei minutu, txartel kutxa  
harkaitz gainean dago.  
Nahi badugu eskalatzaileen-  
tzat oso ezaguna den Atxarte ingurura joan daiteke, gai-  
lurrentatik zuzen jarraituz, oso hurbil dago. Pila bat gazte  
ikus dezakegu harkaitzetatik zintzilik.



Bidean: ALTZA-PINUA-URKIA-PAGOA-ARTEA-GAZTAI-  
NONDOA HARITZA eta GERIZIONDOAK ikusi geni-  
tuen.

# berton



MAHATSERRIKO  
ALDIZKARI

Urtebeteko harpidetza izango duzu:  
11 zenbaki, 1000 pezetatan.

## hartu berton etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre,  
48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena: .....  
 Abizenak: .....  
 Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....  
 Herria: ..... Herrialdea: ..... Posta Kodea: .....  
 Telefonoa: .....  
 Bankua: .....  
 Kontu zenbakia (20 digitu): \_\_\_\_ / \_\_\_\_ / \_\_\_\_ / \_\_\_\_

Sinadura

# SANTUTXUKO LIBURUTEGI ALTERNATIBO BERRIA

Lan handia egin ostean urriaren 22an liburutegi berria zabaldu zan Santutxu auzoan.



⇨ Erdoitza Martínez

Zenbat alditan bajatu behar izan dugu kaskura edo, liburu bat eskuratzeko? Zenbat alditan joan gara liburutegira ikastera, eta lekurik ez egoteagatik kanpoan gelditu behar izan dugu? Baina... hau guztia amaitu da. Orain dela bi hilabete liburutegi bat zabaldu da Santutxuko bihotzean, Karmelo elizaren ondoan aurki dezakegun Gaztetxean konkretuki.

Santutxuko Gazte Asanbladakoek betidanik nahi izan dute liburutegi bat sortzea gure auzoan, jende guztiari zuzendutako liburutegi alternatibo bat, hain zuzen ere. Baina lan hau ez da dirudien bezain erraza: boluntarioak, liburuak, materiala,... ta gainera, non topatu lokal egoki bat? Bi urte betetzear dagoen Gaztetxeak bere ateak irekitzean, aukera ezin hobea zela pentsatu zen, bertan hainbat gela

libre baitzeuden, proiektua aurrera ateratzeko aproposak.

Zazpi hilabetetan zehar buru belarri egon dira lanean. Hormak margotu, apalak egin materiala lortu (mahaiak, aulkiak,...),... eta garrantzitsuena liburuak eskuratu. Behar zuten guztia lortu ahal izateko kartekez bete zuten gure auzoko atariak, jendeari bere laguntza eskatuz. Auzokideen harrera ezin hobea izan dela, eta oraindik ere liburuak heltzen doazela komentatu digu Maitanek, liburutegiko ardurdunetarikoa bat. Horrela, inguruko jendearen laguntzari esker, nahia errealitate bihurtu da; eta hamaika liburu ezberdin, aldizkari eta entziklopediak topa ditzakegu bertan, bai irakurketarako baita kontsultarako ere.

**"Jendearen laguntzari esker,  
nahia errealitate bihurtu da"**

**"Auzokideen  
harrera ezin hobea  
izan da"**

Guztia prest zegoen inaugurazioa burutzeko, eta honen inguruan hainbat ekitaldi egon ziren. Alde batetik, Jose Luis Zabalak, euskal idazle gazteak, bere liburu aurkeztu zuen: *Galdu Arte*; eta bestetik, bertsolari batek giroa alaitu zuen. Egun hori pasa... eta hortik aurrera Gaztetxeko Asanbladak borroka handia egiten ari da lokal hau aurrera ateratzeko; liburutegi hau autogestio-natutako Sorgintxulo gaztetxe-sozial eta kultur zentroaren helburu nagusienetarikoa bat baita.


Egunero goizeko hamaiketatik ordu biak arte eta arratsaldeko bostetatik zortziak arte zabalik dagoen liburutegi honen berri ez da Santutxuko txoko guztietara heldu, hainbat gazte oraindik ez dute hone berri eta. Horregatik, bertan egoten den jende kantitatea ez da handia iza-



ten. Hala ere, ardurdunek komentatu diguten moduan, azterketa epean kopurua haztea espero da; ordutegia zabaltzeko aukera ere planteatuko delarik, gazteon beharizanei moldatzeko.

Gaztetxeok liburutegi honek indarra hartzea dute helburu, eta ikasteko lekua soilik izan ez dadin beste hainbat ideia atera nahi dituzte aurrera, baina horretarako guztion laguntza behar dute. Horregatik, auzokide guztien partehartzea eskatzen dute. Badakizue, hurbildu zaitez eta parte hartu!!

**ZURE  
PUBLIZITATEA  
HEMEN  
94 473 54 48**














**ASAPALA**  
KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon  
topagunea eta elkarte  
egin guran gabilta

**Zeuk ere euskararen ardura badaukazu,  
batu gurera!**

Hemen gagoz:  
Iturriaga 55, 1. Ezkerra  
Tfnoa. : 944735448  
E-posta: asapala@eusnet.org

# horoskopoa

-  **Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra. Aintzinako maitea berreskuratu nahian zabiltzala? Noiztik arduratzen zara birziklaiaz?
-  **Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra. Planak aurrera eroatea ezinezkoa izan zaizula? Lasai, motel, milurteko berrian badakizu; planak aldatu?
-  **Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra. Olentzarori ezinezkoak eskatzen? Errazago duzu kotxe bat eskatzen badiozu, agian ekarriko dizu?
-  **Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra. Ohitura berriak komeni estreinatzea komeni zaio zure gorputzari, anima zaitez!
-  **Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra. Bizimodu sentimental honek ez dizu mesede handirik egiten, hobe duzu amodio kontuak alde batera uztea.
-  **Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra. Turroia jan eta loditzen zarela diotsute? Aizu! Etzazu sinetsi esaten dizuten guztia, erdia baino ez da egia-eta.
-  **Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra. Ez zarela dibertigarria diotsute? Akaso ba ote dakite zer demontre den dibertitzea?
-  **Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra. Meidkuarenera mina ez dakizula non duzun? Zure sintomek alperkeriaren itxura guztia dute.
-  **Sagittarius:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra. Haren ondoan jartzen zarenean adurra jaustea baino ez zaizu falta. Eros itzazu bi badaezpada.
-  **Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra. Estatistikaren arabera aurten ligatzea tokatzen zitzaizula eta ezer ere ez? Lasa motel, portzentaiaik besterik ez dira-eta.
-  **Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra. Ikasteko edo lan egiteko gogorik ez duzula? Lasai, epidemia hori nahiko zabaldua dago eta noizean behin denok kontagiatzen gaitu.
-  **Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra. Interneten bidez ligatzea bururatu zaizula? Zureak bai harreman artifizialak!

# agenda

**Abenduak 21 :**  
 - Santo Tomas azokaren barnean Oskorri-ren kontzertua Arenalean.  
 - El Carmen Aretoan Children of Heaven pelikula Iraniarra. 19,45tan.  
 - Kafe Antzokian Imuntzo eta Belokiren kontzertua. 21,00tan.

**Abenduak 22 :**  
 - Bilborock-en S. Daughters eta Undershakersen kontzertua. 20,30tan.  
 - Euskalduna Jauregian ballet-a : Igor Yebra. 20,00tan.

**Abenduak 23 :**  
 - Euskalduna Jauregian ballet-a : Igor Yebra. 20,00tan.  
 - Bilborock-en Nel. Lo y la banda del Zocoren kontzertua.

**Abenduak 24 :** Olentzero auzoetan.

**Abenduak 26 :** Euskalduna Jauregian Euskal Herriko Orkestra Gaztearen kontzertua. 20,00tan.


**Abenduak 28 :**  
 - Bilborock-en haurrentzako zinea.  
 - Influxente eguna. Kontuz ibili!

**Abenduak 30 :**  
 - Bilborock-en haurrentzako zinea.  
 - Kafe Antzokian kontzertua : "Todavía cantamos, todavía luchamos", Quintín Cabrera ( Uruguay), Anje Duhalde (Euskal Herria), Aina (Galizia), Juan Luis Parra ( Catalunya)... 21,00tan.

**ERAKUSKETA GELAK :**  
 - Begoñako udaldegian : Alicia Ruiz. Oleo eta akrilikoak. 7tik 23ra bitartean.  
 - Alde zaharreko udaldegian (Pelota, 10) : Hirugarren Mundua Bakea. Panel eta argazkiak. 20tik aurrera.  
 - BBK-ren kultura gelan (Elcano, 20) : A.Schommeren argazkiak. 29tik aurrera.  
 - BBK-ren erakusketa aretoan (Gran Via, 32-behea) : Belenen erakusketa. 18tik aurrera.

**BESTERIK :**  
 - Abenduaren 17tik aurrera : Umeen Gabonetako Parkea. Bilboko Erakustazokan.  
 - Abenduaren 18tik aurrera : Artisautza Azoka. Arenalean.  
 - Urtarrilak 1 : Ongi etorri, 2.000. urtea!!!  
 - Urtarrilak 5 : Sorgintxuloren lehen urteurrena.  
 - Urtarrilak 6 : Santutxuko herri krossa.

# Milurtekoaren Amaiera



igor zorrozu a